

Europar Batasuneko Industria, Berriztapen eta Leihakortasun ministroek Donostian burutu behar duten gailurra dela eta, ezkerreko euskal eragile sozial, sindikal eta politiko anitzek Europar Batasunaren proiektuak bere baitan izkututzen duena salatzeako protesta batetara deitzea beharrezkoa ikusten dugu

Lehenik eta behin, Donostiako Europar gailurrerako deiak izan duen jakinarazpen prozedura salatu nahi dugu, gizarteari izkutatu nahi izan baitzaio azken momentura arte; prozedura horrek protestarako edozein ekimenen antolakuntza oztopatzea izan du xede, gatazka politiko bat bizi duen herria izanik, munduari Euskal Herriari buruzko "normaltasun" irudi bat ematen saiatzeko.

Europar Batasunak multinazionalen eta bazkide-estatuetakoko eliteen interesen zerbitzura dagoen eta Europa bertako Herri eta langile klaseei erabakitze eskubidea ukatzen dien egitura instituzional antidemokratikoa dela frogatu du; Lisboako ituna da adibide garbi bat, oinarrizko eskubide sozialen aurkako orientazio ekonomizista duena eta gizarteari kontsultatu gabe onartua izan dena (Irlandan ezik, lege bidezko aginduagatik).

Interes horiei erantzute bidean, EB kez du zalantzan jartzen lan baldintzak okertzea, ezta kaleratze zein lan-suntsipena sustatzea, "flexisegurtasun" doktrinak erakusten duen bezela; era berean, bere azpiegitura diplomatiko osoa europar enpresek Hegoaldean dituzten gehiegikeriazko estrategia komertzial eta enpresarialak defendatzeko erabiltzen du. Eragile sinatzaileok guztiz errefusatzen ditugu EBk bestelako herriei eragiten dizkien presioak akordio komertzialak lortzeko, "Elkartze Akordio" oker izendatuak. Hegoaldeko herrien zein baliabide naturalen "neokolonialismo" eta espoliazio ekimenak dira.

Eliteei babes hori ematearekin batera, alde zuzeneko hausnartutako europako herritarren babesgabetea ematen da. Eragile sinatzaileok beste behin salatzen dugu Komisio Europarrak sustaturiko zerbitzu publikoen eraispen eta pribatizazioa. Zerbitzu publikoak ez lirakeke negozio izan beharko, pertsonen oinarrizko eskubideak baizik.

EBk mugekin darabilen politika arbuia garria da erabat. Onartutako arteztarau desberdinen bitartez EBz gotorleku bat egin nahi da, non dirua eta ondasunak libreki mugitu daitezkeen bitartean, pertsona migratzaileei giza-eskubideak urratzen dituzten hesiak ipintzen zaizkien. Itzulera Arteztaraua, "Lotsaren" arteztarau moduan ezaguna, bereziki arbuiaztatzen dugu.

Ingurugiroaren aldeko EBren diskurtsoa oso motz geratzen da neurri zehatzak hartzerako orduan; beste behin, kapitalaren irabaziak herrien, herritarren eta gainontzeko izaki bizidunen gainetik daude. Copenhageko gailurraren hurbileko porrota, gizateriaren etorkizunerako momentu kritikoa batean, honen guztiaren beste adibide bat da.

EB ekonomia kapitalistak indartu eta leihakortasuna hobetzeko helburuz sortutako egitura izatean ("Europa Globala munduan leihatzen" estrategiak edo "Bolkestein" arteztarauak islatzen duten moduan), garraio, nekazaritza, finantza, hezkuntza... politika europear guztiak helburu ekonomikoaren pean kokatzea dakar, eta ingurugiroaren espoliazio handiago batean zehazten dira. EB sozialki eta ingurugiro aldetik ez dela jasangarria salatzen dugu.

Era berean EBk egun existitzen diren estatuak eta estatuentzako sortutako proiektua dela frogatu du; ez du kontutan hartzen herritargoaren parte hartze aktiboa eta bere eraikuntza Kapitalarekin eta interes enpresarialekin konplizitate estuan ematen da. EB honek errealitate plurinazional eta estaturik gabeko nazioak kontutan hartu gabe jarraitzen du, baita autodeterminazio eskubidearen aitortza eta aplikazio aldarrikapenei entzungor egiten, bere interes geostrategikoei komeni zaienean ezik.

Eragile sinatzaileok herrien arteko, borroka desberdinen arteko eta pertsonen arteko elkartasunean sinisten dugu. Hori dela eta, Donostian gailur horren aurka Otsailaren 7, 8 eta 9an antolatuko diren ekimenetara deitzen zaituztegu.

Euskal Herriko eragile sozial, sindikal eta politikoak deitzen ditugu modu berean izkutatu nahi izan duten eta udaberriaren irufean egingo duten europar gailurrari erantzuteko batu daitezten.

**KAPITALAREN EUROPAREN AURKA,
HERRIEN ETA LANGILEEN EUROPAREN ALDE!**

Bat egin nahi duten eragileek atxekimendua emateko: kapitalarenaurkakoplataforma@gmail.com